Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Dionisio Jamar Sario

Garaioa, Nafarroa (1909)

Aurkibidea

Biografia

Aezkoako Garaioan jaioa. Gurasoak ere bertakoak zituen.

Zintak

GAR-002

- **Proiektua**: Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Data**: 1986-01-01
- **Iraupena**: 8 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea**: Artola Kortajarena, Koldo

Pasarteak

1. Garaia, labore-aleak gordetzeko eraikuntza

- **Erref**: GAR-002/001
- **Iraupena**: 0:08:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:08:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:
Garaiak pilareen gainean egiten ziren, saguak ez sartzeko. Gero "ziskuak" edukitzen zituzten, kutxa antzekoak, ale mota bakoitza bereizteko.

Transkripzioa
- Bat bakarrik, ori e... len baze geixago, geiao baia... orei, ori bakarrik gelditzen da, ezta... ori beno geiagorik, ez.
- Noiz egina da?
- Oi! oi-oi-oi, ze? eztakit zenbat urte izein tu, nik e, nik ez ya eroitzen, ene... aitamen, aitonen... denboretan sauri izein de ero len-, lenagokoa izein da ori; badu gor? e... inskripzio bat, ‘mil ochocientos ocho’, ta ‘mil ochocientos ocho’, orai izein tze, e... berritu zen zerbeit, part-, artuko ote, berritzea, baia eina? or, urte ori beino lenaokoa izein da, ‘mil ochocientos ocho’ lenaoko, bai, izein tze. Anix urte oino lenaoko ori, eta ‘mil ochocientos ocho’, dao, ziskuak ein tzire berriak, ziskuak, garëe? ta... barnean, tzisku berriak? ta, ori... ze, aurtean, eintzën tzena, ‘mil ochocientos ocho’, baia ori, ya, lemixikotik einik txu, egun urte o geiao? lenaoköa izan daike, e?
- Ziskoa esan duzu?
- Ziskoak; ziskoak dira bat? ziskua? tä, en garëen? en... barnean, daude, ziskoak dira, dira e... tziskuas? ebultzeko gen garia, gor oloa, gan... garagarra, bereixteko atzi gori.
- Atze, atze bat?
- Azia, azia, ‘semilla’... bereixteko; nasiek ezteike... iduk, e... garia ta... oloa ta babak eta... nasirik, bear tzire berreixirik iduki, ta bereixteko ein dire, deitzen dugu oe xixköa; ziskuak dira, e... kaja batzu bezala, sartzeko gor, anteikekin sepatuis, zu-, zul batzu, batzureki, ta o... eldu zen orduan, orduen ze, urte orei izein tze indu zuten tzisku goi, bereixteko azia, gen uzteko garia, eta garian ere bazire, bazire e... klase... batzu, ereittekoa, bertze at xateko, ta oek e, biar tzire utzi berexiri(k), ta uzteko berexirik in tzüte zisku goi, ta ‘mil ochocientos ocho’.
- Oso ongi, oso ongi kontatu duzu...
- Eta ori... lemiziko? egun autes saurik ebiltzen du(u) lenauköak, egitera, saurik! eta iyen ere? yao ere. Ta gen, errian? ezta bertzeik gelditzen, bat ze... nik ezaun dut, bertze bat ezaundu nue, geiao eztut ezaun Gareban, ta ura... ura ere... botatu zuten? ta orei ezta geixao.
- ‘Saurik’ erran duzu?
- Sauri, nor? nola sauri?
- Erran duzu egon zirela edo...
- Ni, saurik, ‘yo por lo menos’, nik erran, nik saurik ezte-, eztakitela; ni, saurik, eztakit.
- Ah, saurik? ¿yo por lo menos?
- Yo por lo menos; ni, saurik, yo por lo menos.
- Ah, hori ez nekien, ez nuen ezagutzen hori...
- Bai...
- Eta hori nola dago egina? tira, badakit nola egina den baina zuk

kontatzen baduzu... garaia, badakizu, pilare batzuen gainean eta...
- Geinean dao, bai, geinean, eta, oen pean? ze ongarritegia. Ongarritegia? ongarria? e, beien ongarria gor sartzen tze, ta gor geinean? gero? pues garian, garia? garia. Garia goren atetan, garia ta oloa ta zalkëa ta ebek, el-ereitzen tzen? t'ala... aultzietan biltzen tzien? gor, gor sartzen tzire or.
- Eta zergatik egiten zen pilare horien gainean?
- Ah, oi... nik uste...
- Tira, badakit zergatik baina nahi dut zuk kontatzea...
- Saguek... bai, saguek ez sartzeko! badakizu, ek-ek... bilatzoute ori ta, altxa tute? ta, saguek xaten boute?... jendendako ezta izein; ta gorrengati ez sartzeko gor.
- Eta erabiltzen zen eskailera bat, eskukoa, igotzeko, ez?
- Bai, esku-, eskalera bat, egateko, bai.
- Eta gero, behin zalkea, baba eta gauza horiek han utzi ondoren, jautsi, eskuko eskailera hori kendu, eta kito; orduan saguak ez ziren sartzen... Eskuko?... etziren sartzen, ez. Mmm... eskuko eskalera gori nik eztut ezaunduren, ezaundu; arri-eskalera bai, gor dao oino, baia eskuko eskalera gori? nik eztut etzein; gor, arri-eskalera gorti sartzen da? e... iyotzen de ataria? ta... gan sartzen da. Klaro! e... eskuko eskalera oi? e... ze, ekentzeko, etzutela en... sartzeko bidea, etzütela sague izein; aldira, orregatik ze.
- Hori, hori da, baina oraingo eskailera horrekin saguak sar daitezke...
- Or, paeta atzen doo, gealko kopa.
- Hori geroago egina izanen zen...
- Bah! badeiltza gori, saguek oai.
- Ah, badira, e?
- Je! badire, bai.
- Eta hor, orain, barruan, zer gordetzen da?
- Nola barruan?
- Garai horren barruan zer gordetzen da orain? lehen bezala?
- Len bezala, bai, bai, biltzen dugun garea igual guartzeagua idukitzen dugu.
- Baina hor saguak sartzen dira...
- Bai, saguas kontino? baia, imiten dugu zenbait aldiz? pues, an... gatuak ere sartzen dira, gatuak, zilo bat edo ataria gatuä sartzeko, ta sartzen badira gatuak? aek ejeje!...
- Idukitzen dituzte xut, xutik ez? firme, ez?
- Bai, bai, bai; gat-, gato sartuaskos? nik e... garëan ikusten bout e, kaka-gatuak? e... konten naö, bai, gatua beldurtzekoa da, xaguak eo... urrunduko dira andik, bai. Eta ezpada yagori(k)? pues ezartzen duu zerbait xateko, ya iltzen diren gaekin. Ori da bera.
- Eta hemen zein beste herritan dira halakoak?
- Len bazire, bai...
- Arian bada aunitz...
- Aria? ba, Arian ta Orbaran ta bazire, eta... bertze errietan orei...
- Ariben ere uste dut bat badela...
- E? Ariben? Are-, Ariben ere bai oino bada, nik uste baden; Ariben, Arian ta Orbaran, oino badira zenbeit; bertze errietan eztagit... eztagit te, orei, nik e'oroitzen... ezpada Orbaixtan? bertze errietan... eta akaso Ireberrin ere bai.
- Bai, uste dut baten bat badela.
- Ireberrin izan deike, erri batean izan deike, baia bertzeok? bertze errietan ya ez; Aburretan? nik uste ezten bat ere, nik ori... eniz oroitzen, ba, denboran, ta Garraldan ee... eztagit. Lenago, izen tzire? erri gutzietan ori, ta... gero, fan dira... etxeak berritzen ta oik ekentzen ta bertze gitsa batean e... imitera, ta, ta ezpeitute... orei, orei... orgoek, orei, nei dute e...

kontserbatu len beino geiago, orduan etzute inportatzen bate, etzute... estimatzen biar tzen bezala, eta... etze, itzeba, (zuzenduz:) etzute... axolik izan? e... botatzeko ta bertze... bertze gauza de eiteko. Gala pastu da, lenaoko gauzak, orei... denborekin? estima-, obeki... estimatzen dira orduan beino, zitagera (?). Orduan? e... ezpazire estimatzen?... i... berdin ze, irukitzea edo ez irukitzea, ta bertze gisan, etortzen bazire orreki? botatzen tzure lurrera? ta ori, ya, bein... botatuaskos? gero ya etzute egitten ori. Ala pastu da.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-13

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com